

dotik jaurtiko nindukezu, au esanaz : "Oa bein, txakur madarikatu ori !" Bai? Bada zoaz zu, ama, zoaz zu. Gaurtik ez niaitzu etorriko geiago zuk dei egitean, ezta ez dautzut itxiko niri jaten emoten be !

Ni, zure seme ordez, loritu orlegi baiño ez ba' nintz, esan, ene ama, zuk loturik eukiko nindukezu egazka joan ez naiten ? Atz-zut akar egingo zeuskit, onela esanik : "Txori gaizto doakabo ! Gau ta egun osoan bere kateari pikoka !" Bai? Orduan zoaz zu, ene ama, zoaz zu. Ni landara joango naz egaz, ta ez dautzut geiago itxiko zeure beso artean ni eukiten !

## 25

## BARNE-DEIA

Goiz guztietan, ezkillak amar jo ta ni eskolara noanean, kalean topo dagit saltzaille bategaz; beti diño bardin: "Eskuturrekoak, zidarrezko ta leiarrezko eskuturrekoak !" Egundo ez dabil aringa, iraduz ta leiaz; ez doa nai dauan lekutik baiño ; ez dau iñok toki batez a eldu-erazten, ezta bere orduan etxera itzultzera beartu be...

Nor litzaken saltzaille, eguna kale zear emoteko, onelango oiuz : "Eskuturrekoak, zidarrezko ta leiarrezko eskuturrekoak !"

Lauretan, eskolatik biurtzean, arrastiro begiraten dot an dagoan etxe atako ate zulotik zear,

eta ortulaua dakust (ikusten dot) baratzeko lurra atxurtzen. Berak nai dauana dagi atxurragaz, nai bestean autsez loitu daroa bere soiñekoa, ta eguzkiak baltzitu egiten dauala esaten iñor be ez yoa-ko, ezta urak bustiten dauanik be...

Nor litzaken ortulaua, arratsalde guztian, iñok eragotzi baga, baratzean atxurtu ta atxurtu ekiteko !

Amak, illunduaz batera, ogera bialtzen nauanean, gau-zaiña dakust leiotik, gora ta bera, jago ten. Illun ta bakar dago kalea, eta argontzia (parola) zutik dago, kolorezko begi bakardun erraldoi antzera. Gau-zaiña ara ta ona dabil, bere argontzia kulunkatuz ondoko kerizpeaz, eta ez dau egundo be ogeratu bearrik.

Nor litzaken gau-zaiña, gau osoa kalean beera, kalean gora emoteko, neure argontziaz itzalak uxaturik !

## 26

## NAGUSITASUNA

Ama, zure neskatoa alotza da. Ergel uts gaxoa ! Ez daki oindiño kaleko argiak eta izarrak bereizten !

Arri koskorrak jatera jolasten ba'gara, egiaz janari dirala uste dau, ta iruntsi gura dauz. Neure liburua aurrean ta abeze ikasi bear dauala ba' dirautsot, orriak apurtzen dautsoz, eta gero, gauzarik oiezkoena egin ba'leu lez, orru dagi poza-